

Hitzarmena

OTXANDIOKO (BIZKAIA) UDALEKO
ALKATEAREN/LEHENDAKARIAREN ETA ARAMAIOKO (ARABA)
UDALEKO ALKATEAREN/LEHENDAKARIAREN ETA OLETAKO
(ARAMAIO-ARABA) ADMINISTRAZIO BATZORDEKO
LEHENDAKARIAREN ARTEAN ADOSTUTAKO HITZARMENA BI
UDALEK BERTAKO BIZTANLEEI HAINBAT ZERBITZU EMATEA XEDE
DUEN LANKIDETZA BIDERATZEKO.

BILDUTAKOAK:

Alde batetik, Aritz Otxandiano Campo jauna, Otxandioko (Bizkaia) Udaleko alkatea/lehendakaria,

Bestetik, Asier Agirre Mugarza jauna, Aramaioko (Araba) Udaleko alkatea/lehendakaria,

Eta, bestetik, Agurtzane O. de Landaluze andrea, Oletako Administrazio Batzordeko lehendakaria.

Guztiak dagozkien udalbatzetako eta tokiko erakundeetako alkate/lehendakari gisa esku hartuko dute eta, zentzu horretan,

ADIERAZTEN DUTE

1.- Hainbat gara Oihandi bailararen parte garen udalerrriak. Oihandi bailara gisa ezagutzen dugu iparraldean Urkiolarekin, ekialdean Anbotorekin eta Orixolekin, hegoaldean Urrunagarekin eta Legutiorekin, eta mendebaldean Gorbearekin eta Oketarekin muga egiten duen lurraldea Era berean, hainbat gara bailara honetan gune poblatuak ditugu herriak: Aramaiok Oleta dauka; Abadiñok Urkiola eta Amaintemin, Zeanurik Barazar; eta Ubidek eta Otxandiok berriz, populazio guneko guztiak.

2.- Hitzarmen hau izenpetzen dugunok gure bailarak izan beharko lukeen garapenari buruzko ikuspegi bera konpartitzen dugu. Garapen horren oinarriak ingurune naturalarekiko oreka, gure izaera euskalduna eta bailaran bizi garenon parte hartze aktiboa izan beharko lirateke. Era berean, adierazten dugu bailararen garapenak bertan bizi diren pertsonen bizi kalitatea hobetzea izan beharko lukeela helburu nagusi gisa. Hau guztia, garapen eredu justuago, demokratikoago eta orekatuagoa bat eraikitze bidean.

3.- Garapen eredu iraunkorrago baterunzko bidea egin nahi badugu, beharrezkoa da pertsonen eta merkantzien mugikortasuna arrazionalizatzea.

4.- Hitzarmen hau sinatzen dugunok gure bailararen garapena helburu duten proiektuak zehazten eta gauzatzen elkarrekin batera lan egiteko dugun asmoa adierazi nahi dugu. Ikuspegi integraletik eta integratzailetik

esku hartuko dugu, beti ere udal ezberdinen eskumenekiko eta erabaki esparruekiko errespetu osotik.

4.- Helburu honen baitan ulertu behar da lehenengo urratsa besterik ez den Hitzarmen hau.

5.- Gainera, Otxandio eta Aramaiori dagokionean, beharrezkoa da hainbat mendeetan 2 udalerrien arteko liskarra eta mesfidantza sortu duen "El Limitado" izeneko lurraldearen inguruko gatazka gaindetzeko urratsak ematea.

6.- Gatazka historiko horrek pizgarri bihurtu beharko luke liskarra gainditu eta bi udalerrien arteko lankidetzarako esparruak garatzeko. Zentzu horretan, hitzarmen hau aro berri baten lehenengo pausu gisa irudikatzen dugu.

7.- Oihandi bailarako biztanleean bizitza kalitatea hobetu asmoz, eta aurretiatzko gogoetak nahiz udal ezberdinek eskaintzen dituzten zerbitzuen sarbidean gertutasun irizpidea kontutan hartuta, 2 aldeek hitzarmen hau izenpetzen dute honako hauen arabera,

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen helburua udal horiek eskaintzen dituzten zerbitzuetara Aramaioko biztanleek izango duten sarbidea arautzea (Otxandioko biztanleek dituzten baldintza ekonomiko berberekin) eta Otxandioko biztanleek izango duten sarbidea arautzea da (Aramaioko biztanleek dituzten baldintza ekonomiko berberekin).

Bigarrena.- Hitzarmen honi gehituko zaizkien zerbitzu berriak sortzeari edo eskaintzeari kalterik eragin gabe, hitzarmenaren helburuak honako jarduera hauek izango dira:

- Ludoteka.
- Udalekuak.
- Igerilekuak.
- Pilotalekua.
- Ikastetxe publikoak.
- Haurtzaindegia.
- Kontsultategi medikoa.
- Prestakuntzako eta entretenimenduko ikastaroak.
- Kirol jarduerak eta ikastaroak.
- Ikastaroak, jarduerak eta instalazio ludikoak.

Hirugarrena.- Udalek edo Administrazio Batzordeak eskainitako zerbitzuen truke ordaindu beharreko prezioa berbera izango da bi udalerrietako bizilagunentzat.

Laugarrena.- Eskainitako zerbitzuek plaza kopuru mugatua dutenean eta eskaerak eskainitako plazak baino gehiago direnean, lehentasuna izango dute zerbitzua eskaini duen udalerriko biztanleek.

Bosgarrena.- Bi udalek beren zerga ordenantzak eta tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak egokituko dituzte hitzarmen honek bildutakoak bete daitezzen.

Seigarrena.- Eskainitako zerbitzuen kostuak partekatu ahal izateko, udalen arteko konpentsazio ekonomikorako sistema hau ezarriko da:

Zerbitzua eskaintzen duen udalari beste udalak zenbateko hau eman beharko dio: eskainitako zerbitzuaren kostu zuzenari erabiltzaile kopurua zatitu eta hori, aldi berean, beste udalerriko erabiltzaile kopuruarekin biderkatutakoan, zenbateko horri erabiltzaile haiek prezio edo tasa gisa ordaindutakoa kentzetik ateratzen den emaitza.

Formula:

CS = Zerbitzuaren zuzeneko kostua.

NU = Erabiltzaileen guztizko kopurua.

NB = Zerbitzua eskaini ez duen udalerriko biztanle diren erabiltzaileen kopurua.

IB = Zerbitzua eskaini ez duen udalerriko biztanle diren erabiltzaileek zerbitzuaren truke ordaindu dituzten prezioen eta tasen guztizko zenbatekoa.

C = Zerbitzua eskaini ez duen udalak zerbitzua eskaini dion udalari ordaindu beharreko zenbatekoa.

$$C = ((CS/NU) \times NB) - IB$$

Zazpigarrena.- Ondoriozko zenbatekoen ordainketa era honetara egingo da:

- Izaera puntuala edo garaian garaikoa duten zerbitzuak: ikastaroak eta igerilekuak, esate baterako: Matrikula egiteko epea amaitu eta dagokion likidazioa bidali ondoren.

- Urteroko izaera duten zerbitzuak: azaroan bidaliko den urteko likidazioa bidali ondoren.

Zortzigarrena.- Eskainitako zerbitzuaren zuzeneko kostua izango da harengan zuzenean aplikatu ohi dena, administrazio kostuen banaketa proportzionala aplikatu gabe.

Bederatzigarrena.- Administrazio kostuak eraginik ez duenez, kostu horiek konpentsatu ahal izateko, bi udal horiek ez diote besteari zenbatekorik bidaliko ondasun higiezinaren gaineko zergarekin lotuta.

Hamargarrena.- Urteko ekitaldia hasi baino lehen, bi udalek hitzarmen honetan bildutako zerbitzuak eskaintzera bideratutako aurrekontuko zenbatekoen inguruko aurreikuspena elkarri jakinarazi beharko diote, aurrekontuak modu egokian gauzatu ahal izateko.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau bi mila eta hamaikako urtarrilaren batean sartuko da indarrean eta aldeetakoren batek salaketa jarri arte egongo da indarrean.

Hamabigarrena.- Bi udalerrietako alkateek eta Oletako Administrazio Batzordeko lehendakariak osatuko duten jarraipeneko batzordea eratuko da. Aipatutako batzordea, gutxienez, urtean behin bilduko da eta hitzarmen honen jarraipena eta eguneraketa egiteaz arduratuko da.

Eta adostasunaren froga gisa, hitzarmen hau izenpetu dute hiru aletan, goian zehaztutako tokian eta datan.